

Kontzertu bat ikusteko ordu batzuk errepidean pasatzea axola ez zaien horietakoa bazara, asteburu honetan hitzordua interesgarria duzu Errioxan, Serie B jaialdiaren bosgarren ekitaldia egingo baita Pradejonen.

Aurten Fierabras kultur elkartearen esku gelditu da Serie B jaialdiaren antolakuntza (orain arte La Imagen aretoak kudeatu du), baina bere filosofia ez da aldatu. Hiru egunetan musika, zinema eta literaturaren aurpegi alternatiboa erakustea du helburu jaialdiak. Horrela, ardatz nagusia den musika egitarauaren batera, laburmetraiak eskainiko dira larunbat goizean (*Esposados, Estrecho adventure, Muerto de amor...*) eta igandean, herri bazkariaren ondoren, *Lesiones* izeneko poema irakurketa izango da. Hiru egunetan dohainikako kanpalekua izango da. Aurten joko duten musika taldeen zerrenda osoa agendan topatuko duzu (Make-Up taldearen ordez, Subsonics-ek joko du ostiralean). Hemen dituzu izen nagusiak.

● **The Headcoats:** Garage-punk eta rock&blues taldea. Liderrak, Billy Childish, 35 diskotik gora eta hamaika single grabatu ditu, eta Pop Rivets eta The Milkshakes taldeetan aritu da, besteak beste. Ostiralean, 02:15etan.

● **The Headcoates:** The Headcoatsen bertsio femeninoa. Ostiralean, 01:15etan.



● **Subsonics:** Make Up-en ordezkoa Atlantako hirukote hau izango da. Velvet Underground, T. Rex eta Violent Femmesen arteko nahasketa da Subsonics, eta hirugarren diskoa, *Everything is falling apart*, aurkeztuko du. Ostiralean, 03:15etan.

● **Manta Ray:** Asturiasko taldeak ez du aurkezpenik behar dagoeneko. Corcobadorekin biran aritu ondoren, bakarkako emanaldietara itzuli da. Diabologum Okzitaniako taldearekin grabatu berri duen diskoko hiru abestiak eta berehala grabatzea sartuko den bigarren diskoko kantuak aurkeztuko ditu Pradejonen. Larunbatean, 24:00etan.

● **Gallonk Drunk:** iaz ekartzen

saiatu ziren antolatzaileak, baina azken orduan ezin izan zuten. Aurten ez dirudi huts egingo duenik James Johnston buru duen Erresuma Batuko taldeak. Tabernako bluesa, izerdia eta alkohola, grina eta intentsitatea eskaintzen du Nick Caverekin jarritan konparatua izan den taldearekin. Zuzeneko indartsua agintzen du. Larunbatean, 02:00etan.

● **Guided By Voices:** erabat talde minoritarioa dugu GVB. *Lo-fi* estiloaren aitzindaria, pop melodiak eta *noise*-a minutu eta erdibi minutuko abestietan nahasten maisua da Robert Pollard buruak. Zuzeneko nola izan daitekeen in-kognita hutsa da. Taldea eraberritua dator, eta *Mag earwhig!* dis-

koa aurkeztuko du. Larunbatean, 03:30etan.

● **Tedium:** Jugs Lixiviadosekin batera joko duen euskal talde bakarra da Iruñekoak. Seikoteak *Full lenght portrait* diskoko abesti sentsualak eta delikatuak eskainiko ditu. Igandean, 16:30etan.

● **Aidan Bartley:** abeslari irlandarra da Bartley. Folk-pop doinuak eta hari moldaketak uztartzen ditu. *Between the gutter and the stars* izeneko diskoa atera du Grabaciones en el Mar zigiluarekin. Igandean, 18:00etan.

Informazioa: (941) 150362 eta 141133. Web orria: [www.riojainternat.com/serieb](http://www.riojainternat.com/serieb).

*beñat garmendia*

*l a u*  
*p i s t a t a n*

■ **Jane's Addiction** taldea berriz bildu da eta disko bat kaleratuko du urrian. Beno, taldekide guztiak ez dira bildu, Eric Avery baxu joleak uko egin baitio. Haren ordez, Perry Farrel, Dave Navarro eta Stephen Perkins jatorrizko kideek luzeko ordezkoa topatu dute: Red Hot Chili Peppereko Flea. Diskoak bitxikeriak, zuzeneko bertsioak, orain arte argitaratu gabeko hiru abesti zahar eta kantu berri bat, *Kettle Whistle* izenekoak, bilduko ditu. Urria eta azaroa bitartean, bira bat egingo dute Ipar Amerikan zehar.

■ **Ehun Kilo** taldeak ere desegiteko erabakia hartu du. Elgoibarko heavy taldeak datorren asteko larunbatean, hilaren 11n, emango du despedidako kontzertua bere jendearen aurrean, Elgoibarko Gaztetxean hain zuzen. Atzean maketa bat eta bi disko, *Eulien artean* eta *Ehun Kilo*, utzi ditu bandak. Dударik gabe, pisuzko galera da euskal heavy eszenarentzat.

■ **Entzun!** euskarazko musika aldizkariaren ale berria kaleratu da. Koma taldea da azaleko eta elkarrizketa nagusiko protagonista, eta barruko orrialdeetan Xabier Montoia, Mikel Markez, Bonzos, King Chang, Ttak, Skalariak, M-Clan eta Anestesia-ri egindako elkarrizketak, *dance* musikari buruzko erreportajea, Bap!! taldeari buruzko atzerabegirakoa, disko kritikak, musika albisteak eta bestelako osagaiak topatu ahal izango dituzu.

*beñat garmendia*

*d i s k o a k*



**Sekouba Bambino**  
Kassa  
Stems, 1997

**Gineako izar berria.** Gineako izar gazte nagusietako bat den Sekouba Bambinok garbi erakusten du Kassa honetan ekoizle ezberdinekin lan egiteak noraino eragin dezakeen lan baten zapore ugarietan. Bost dira *griot* familia baten ondorengo honek eskuratu dituen ekoizleak (kontuan hartu Kassa-n Ginean kaleratutako bi lanetako kantuak daudela, hainbat kantu berriekin batera). Haien artean Cabo Verdeko Paulinho Vieira, eta lehenago Keita edo N'Dour bezalako jendearekin lan egindako Jean Philippe Rykiel frantzuarra.

Mandingeraz aritzen den kantari honen Kassa, beraz, afro-pop ukitu nagusiaz jantzita dator kigu, nahiz eta kantu batzuetan, adibi-

dez, bere *griot* sena gogoratu eta pieza akustiko ederrak eskaini. Oro har, ahotsa da lan honetako erakarpen nagusia, erritmo eta instrumentazio askoren gainean altxatzen dena lirismoz eta indarraz beterik.

Esan behar da oso erraz entzuten dela, tonalitate aniztasuna dela medio, nahiz eta horrek agian nortasuna mugaŕtu kantariari. Hurrengo urteetan asko hitz egingo omen da Sekouba Bambinori buruz. Kassa hau ezagutzeko modu bat da.

*andoni tolosa*



**Oasis**  
Be here now  
Sony-Creation, 1997

**Trantsizioko lana.** Liam eta Noel Gallagher anaiek urrezko arrautzen oiloa aurkitu zuten lehen dis-

koarekin, *Definitely maybe*, eta hurrengo lanetan, *What's the story (morning glory)* eta *Be here now* berria, formula horri eutsi egin diote, marketin kanpaina iraunkor batez baliatuz. Zer da bada *Be here now*, aurreko diskoen jarraipena baizik? Manchesterko taldearen jarraitzaileek atsegin handiz hartuko dute diskoa, ez dira dezepzionatuak sentituko, ez dago arrazoirik horretarako, ez baita disko txarra, baina igortzen duen *deja vu* sentsazioa ukazina da. Eta 74 minutu irauten baditu, are gehiago.

Ezeren gainetik gitarren indarrak deitzen du arreta nagusia *Be here now* diskoan. Izugarria da, esaterako *My big mouth* kantuan, eta batek galdetzen dio bere buruari ez ote den gehiegizkoa saturazioa. Bestalde, abesti luzeak egiteko duten joerak ez dio laguntzen diskoari gozagarriagoa eta gustagarriagoa izan dadin — *All around the world* kantua entzulea aspertzearaino luzatu dute—. Horren ondoren, badira Oasis eskolako single argiak — *Stand by me, Don't go away...* —, jarraitzaileen bihotzak atzera

konkistatuko dituztenak, astuntasunetik urruntzen diren kantu arinak — *I hope, I think, I know* edota *The girl in the dirty shirt* —, eta Oasisen aurpegi berri bat erakusten digun baten bat — *Fade in out* —. Beraz, trantsizioko diskotzat jo dezakegu Oasisen hirugarrena, hurrengoan zer eskainiko diguten zain.

*beñat garmendia*

**musika**  
**TILOS**  
DISKO KONPAKTUEN TRUKEA

**CD kluba, Kukuxumusu kamisetak, maketak, euskal aldizkariak, euskal musika tresnak...**

San Joan kalea, 19. - 48901 BARAKALDO  
Tel.: 94 - 438 24 79

**X A R I B A R I**

Legazpi Bi - 943 42 13 12 - DONOSTIAN 200.04  
Bajada de Javier, 2 - 948 22 27 56 - IRUNEAN 310.01